

GOAZ ANTZERKI TALDEA

50 URTE

Irati BAROJA AGIRREGABIRIA eta Mattin URBIETA GALARRAGA, GOAZeko kideak



*Koldo Larramendi, Inaxio Larramendi eta Josu Iriondo EZ DA PALE EGITEKO OLDUA (1986) obran.
(Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).*

50. urtebetetzea du aurten GOAZ antzerki taldeak. Bost hamarkada. Mende erdi. Herriko talde batentzat horrenbeste denboraz bizirik eta lanean irautea ez da inolaz ere ahuntzaren gauerdiko eztula. Are gehiago antzerki talde amateur batez ari bagara.

GOAZen historiaren hasiera duela 50 urte koka badezakegu ere, GOAZek ere badu bere aurrehistoria, 2009an argitaratutako “GOAZ bere ibilbidean” liburuan jaso zen moduan. Argi dago ez zela ezerezetik sortu. Bertan, 35 urtetan eginikoak 202 orrialdetan bildu ziren, beraz ez pentsa hurrengo lerrootan 50 urteetan eginiko

guztia bilduko dugunik, inondik ere. Edonola ere, hariari tiraka jarri garela, alde batetik, artikulua honek 50 urte hauetan zehar GOAZ egin duten eta izan diren horien aintzatespena eta eskertza ditu helburu. Protagonistaz betetako historia bat da gurea, eta istorio amaiezin bat osa genezake, 120 bat lagun pasa baitira GOAZetik. Bestalde, urte hauen errepasoa egiteko ariketa honetan, ezin ditugu antzerkigintzari eginiko ekarpenak eta lanak ahaztu, horiek gabe ez bailegoke GOAZ talderik. Ulertuko duzuen bezala, beraz, ez da lan erraza haria non ebaki eta hariari korapiloa non egin asmatzea.

LEHEN URRATSAK

Hasi, Debako Gazte Elkarteko kideen eskutik hasi zen guztia, bertako lehendakaria Mila Idiakenez zen garaian. Antzerki taldea osatu nahi zutela eta, 1974an eginiko lehen bilera hartan sortu zen GOAZ, Iñaki Letek jarritako izen eta guzti, ordutik hona euskararen aldeko konpromiso garbiari

Z E S T U A

Euskal Antzerkia

Tokia: Eliz-ondo Zinema
Eguna: Apirilaren 5-a
Ordua: Gaueko 9 terdiak

Debako "GOAZ" taldekoek "Senperen-Gertatua" Piarres Larzabalen obra antzestuko dute.

Herritarrok, ikus dezagun saio bakoitzeko txalotua izan den talde hau.

Antzezlariak:

Ganix	Guillermo Andonegui
Anton	Luis Aguirrezabala
Luis	Kurutx Sorazu
Erretorea	Gillermo Urkiza
Polizia	Jesus Mari Ostolaza
Guardia	Pedro Agirrezabala
Tartalet	Joan Jose Idiakenez
Katxin	Anton Mari Aristi
Joana Mari	Maribel Iriondo
Margo	Maite Arregi
Maddalen	Arantza Sorazu
Manex	Gotzon Egaña
Soinujole	Joxe Oñederra
Bertsolari	Joxe Eizagirre
"	Joxe Ramon Zulakka
"	Joxe Mari Agirregabiria

Zuzendaria: Lukas Dorronsoro

SENPEREN-GERTATUA (1975) obraren fitxa (GOAZ Antzerki Taldea).

helduta. Artean etorri berria zen Lukax Dorronsoren zuzendaritzapean, eta garaiko CENSURA pasa ondoren

(frankismo garaia baitzen oraino), Piarres Lartzabalen SENPEREN GERTATUA obra taularatu genuen. Tartean ziren Guillermo Andonegi, Luis Mari Agirrezabala, Kurutz Sorazu, Gillermo Urkiza ... Jendez beteriko ZUBELTZU zinemaren txalo zaparrada artean hartu zuten Martin Idiakenez bertako oihalaren irekigunetik agertzean, eta txalo zaparrada sentituz erantzun zituzten haren aurkezpen hitzak.

Lehendabizikoa izateko ondo joan zen, hain ondo ezen beste bost herritan errepikatu baikenuen emanaldia. Hori nahikoa ez, eta aurrera jarraitu genuen, bigarren obra bat prestatuz. Piarres Lartzabalen ikaslea zen Daniel Landarten HIL-BIZIAK obra izan zen oraingoan. Kasu honetan, bost ez, hogeita zortzi emanaldi izan ziren! Ondorioz, geroztik ezagunago bilakatu ginen, eta horrekin batera emanaldi gehiago etorri ziren, beste antzerki taldeekin elkarlana eta iparraldearekin harremana estutuz. Atzetik etorri zen 1979an XURI, GORRIAK ETA... hura ere Landarten obra. Hamalau emanaldi egin genituen harekin.

Bide horretan, taldea handitzen eta hazten joan zen neurrian behar berriak sortu zitzaizkigun. Ahozkoasuna lantzeko bagenuen nork erakutsia, baina ahozkoaz gain gorputzak baditu beste hizkera batzuk ere. Gorputz adierazpidea lantzeko irakasle bila genbiltzan horretan, Peter Roberts-ekin egin genuen topo, Donostian amaitu zuen mimo eskoziarra berau, eta pozik eman zion baietza ikastaroa emateko proposamenari. Ikastaro haren fruitua izan zen 1978an plazaratutako eta garaiko ezinegon politikoen lekuko zen NUKLEARRIK EZ! kale antzerki mimikoa. Ondotik ikastaro gehiago etorri ziren, Patrizia Montenegro aktorea italiarrarekin egindakoa kasu. Ikasten hasita, ikasteko asko zegoela konturatu baikin.



Josu Iriondo, Begoña Mendizabal, Inaxio Larramendi, Alberto Gorritiberea eta Nekane Salegi, GERNIKA (1981) obran. (Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).

Oro har, urte gorabeheratsuak izan ziren haiek, ekintza aldi gogor eta lan eskerga egindakoak, akiduran jausteko modukoak. Baina gorabeherak gora-behera, aurrera egin zuen GOAZek, liburuan jasotakoa hona ekarrita, *Martin Idiakezen esperientziari gehitu baitzitzaizkion Alberto Gorritiberearen teknokrata aire garbia, Larramenditarren eta Josu Iriondoren irmotasun urraezina, Nekane Salegi eta Begoña Mendizabalen leialtasun samurra eta Kepa Elezgarairen laguntasuna, denak etorkizunari elkarrekin heldzeko erabaki sendoz.*

Konpromiso horrekin heldu zitzaion Luis Haranbururen GERNIKA drama experimentalaren prestakuntzari. 1981ean estreinatu genuen, eta 1983ko Azpeitiko I. Antzerki Topaketan “Euskeraz Sortutako Antzerki Egokienari Saria” eman zitzaion, 35. eta azkena izan zen emanaldian. Nabarmena izan zen horretan Peter Roberts-ek utzitako azterna, eta zalantzarik gabe mugarri bat ezarri zuen GOAZen historian, obra klasikoak egitetik lan berri bat egi-tera pasa baikin.

HELDUTASUNA URRATZEN

Aurreko urteetan eginiko lanari eta pilatutako esperientziari esker heldutasunera iritsi zen GOAZ. Horren lekuko, taldea antzerki eskola izan ez arren, 1983an antolatutako “Gorputz Espresiozko Kurtsiloa” izeneko

ikastaroa, ikasle izatetik, nolabait, irakasle izatera pasata. Horrek jende berriarengana iristeko beste ate bat ireki zuen; horien artean, geroztik taldeko idazkari trebe askoa izango zen Joseba Escudero.

Hurrengo urteetan idazle ezberdinen omenaldiak eta lan berriak uztartu genituen. Bide honetan, taularatutako hurrengo antzerkia Alfonso Sastre-ren AHORA NO ES DE LEIL euskaratu, EZ DA PALE EGITEKO OLDUA, eta taularatu genuen ZUBELTZUn 1986an, I. ANTZERKI ASTE-Aren baitan. 1982an hasitako harreman estu eta aberatsari esker ona adierazteko eta idazlea omentzeko desiraz hiru urtez ondutako lanaren emaitza izan zen. Taldean sartu berriak ziren Maite Aizpurua, Aitziber Dorronsoro, Nagore Dorronsoro eta Ainhoa Allika igo ziren taula gainera, eta hauekin itzuli zen Luis Mari Agirrezabala. Alde teknikoan Iñaki Altzibar, Begoña Arostegi, Xabier Sagarna eta Jose Ignacio Trekuren laguntza izan genuen. Hor ere beste 35 emanaldi joan ziren.

Horren ondoren etorri zen Xabier Mendigurenen KAN-POTARRAK MAISU (1988) eta etorri ziren baita ere Olatz Oartzabal, Amaia Zinkunegi, Marian Larrarte, Kristina Garzia, eta Itziar Sukia. Antzerkigintzaren ohitura indartzeko parada izango zen urte hartan antolatutako II. ANTZERKI ASTEA.



Lukax Dorronsoro, Dorleta Lazaroaster, Arantza Egaña, Ainhoa Urbietta, Joseba Escudero eta Josu Iriondo EUN DUKAT (1994) obran. (Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).



*Aitor Larramendi, Luis Mari Agirrezabala, Iraia Agirrezabala eta Ainhoa Urbieta ZUBI GIZAKIAK (1999) obran.
(Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).*

Erritmo biziko urteak izan ziren haiek, horren atzetik etorri baitziren Tene Mujikaren GOGO OINAZEAK (1988), eta Koldo Anta; Piarres Lartzabalen IHAUTERIAK (1990) eta Dorleta Lazarobaster, Arantza Egaña, eta Juanma Oiartzabal; Xabier Mendigurenen PERNANDO BIZIRIK HAGO ORAINDIO (1992) eta Aitor Larramendi eta Maider Andonegi; TENE MUJIKAK IDATZITAKO OLERKIAK (1993); eta Manuel eta Martin Lekuona anaiei EUN DUKAT (1994), eta harekin batera Iraia Agirrezabala eta Ainhoa Urbieta.

1994. urtera iritsi ginen, eta familia osasuntsu baten traza nabari zitzaion taldeari. Konturatzerako XX. urteurrena bete genuen, ... *ETA... BAGOAZ* lelopean. Aurrera baikindoazen, bai. Orduantxe estreinatu genuen gaur egun ere GOAZen historia bizia den aretoa, Luis Mari Agirrezabalaren bertso gogoangarri eta guzti.

Gainerako eginkizunei muzin egin gabe, LARRIALDIAK prestatzeko denbora atera, eta 1995ean estreinatu genuen, Arritxu Urbieta ere oholtzakide genuela eta Leire Eizagirre musika jartzen.

EUN DUKAT eta PERNANDO antzezten genbiltzan oraindik. Horretan ginela, 1995eko udaberrian Euskal Telebistak PERNANDO grabatzeko proposamena luzatu zigun. Esan eta egin. Abuztu amaieran grabatu eta abenduaren 30ean estreinatu zen.

Harropuztuta edo, 1996ko uztailean PERNANDO, EUN DUKAT eta LARRIALDIAK obrak antzeztu genituen aste-buru bakar batean (hiru egun jarraian) Tolosako "Leidor" Antzoki bikainean. Guk dakigula, gaurdaino beste amateur talde batek berdindu gabeko balentria dugu hori.

1997ak aldaketa bat ekarri zuen, Luis Marik zuzendari lanak hartu baitzituen urte hartantxe estreinatu genuen GEURE BURUARI KUKU lanean. Azpeitiko Topaketetan estreinatu genuen Imanol Eliasek idatzitako obra.

Ez genion utzi euskal idazleak omentzeari, eta EATAE-ren eskutik antolatutako Topaldietan, 1998an, Antonio M. Labaien euskal antzerki idazlearen PETRIKILO, eta 1999an Nemesio Etxanizen IRULEAREN NEGARRA, taularatu genituen Mutrikuko GOIZEKO IZARRA taldearekin batera. Gainera, Joakin Larrañaga eta Maribel Urkiri batu zitzaizkigun lehenengoan, eta horiez gain Jon Esnaola, Martin Iñarra, Jiddu Gonzalez eta Karmele Zulaika bigarrenean. Bi obren artean, Joxemartin Urrutia "Txotxe"-k idatzitako ZUBI GIZAKIAK estreinatu genuen 1999an, gaur egun ere gori-gori dagoen migrazioa gai hartuta. Harekin batera iritsi ziren Amaia Odriozola eta Aritz Jauregi.

MOLDE BERRIAK, KIMU BERRIAK

Milurteko berriari molde berriei ekin genion. Izan ere ordu arteko moldeetatik zertxobait aldendu eta taldeki-deek idatzitako formatu txikiko hiru piezek osatutako antzerkiari forma emanez TRABENAespektraKULO, estreinatu genuen, Ana Ulaziaren makillaje eta karakterizazio lana baliatuz. Ordurako Ainitze Agirrezabala, Eider Zulaika eta Goizane Aizpurua ere gurekin genituen. Azken honek ez zuen asko itxarongo antzerkiak idazten hasteko.

Berriz ere iragana gogora ekarriz, 2002. urtea Martzelino Soroa idazlearen heriotzaren mendeurrena zela eta GABON eta ANTON KAIKU eszenaratu genituen, taula gainean Inma Soraluze eta Maialen Zulaika ere bagenituelarik. Bide eta molde berriak esploratzen jarraitzeko gogoz,

antzerkien idazketarekin jarraitu zuten hainbat taldekidek, eta horren uztia izan ziren 2002an plazaratutako URTE LUZEETAN KATIGU kale antzerkia eta TRABENA TXOUA ikuskizun arina.

30. urteurrena iritsi zitzaigun 2004. urtearekin batera, eta Joseba Zulaikaren izen bereko poeman oinarritutako ADANEN POEMA AMAIGABEA obra.

2005. urtea herriko seme Peli Markiegiren jaiotzaren mendeurrena izan zen, eta haren omenaldi gisa bere bi obra, SEME ONDATZAILEA eta haurrentzat idatzitako TXISTUTXO, eszenaratu nahi izan genituen. Lehenengorako Idoia Gereñu eta Unai Idiakenez batu zitzaizkigun. Bigarreneko Musika Eskolako adiskideei laguntza eskatu eta hara non etorri zitzaizkigun Iñigo eta Unai Gordejuela anaia iaioak. Antzezkizun polita osatu genuen, eta taldekide izatea eskatu zuten! Hura zoriona! Loraldi berri baten kimuak bistaratzen hasi al ziren?

Izan ere, handik ez askora hara non agertu zitzaizkigun Irati Baroja, Biarritz Fernandez eta Nere Oria batzar-tokiaren atarian, GOAZen sartzeko egin beharrekoaz galdezka. Gauzak honela, gaztetxoentzat ikastaro bat prestatu genuen. Gorpilaren bueltan, 2006ak XX. ANTZERKI ASTEA ere ekarri zuen, baina ez hori bakarrik. Aurretik ere talde-

kideek idatzitako antzerki laburrak plazaratuak izan baziren ere, gaztetasunaren ausardiak, Goizane Aizpurua taldekideak agertoki handietarako bidea urratuz, KANIKA ZURI-BELTZAK obra idatzi zuen. 13 emanaldi ematera iritsi ginen.

Kimuetatik bazetozen lore berriak, eta 2009ra obra berri batekin iritsi ginen, 110. STREETEKO GELTOKIA, tartean Paul Diez eta Alba Gonzalez kide berriak bildu zitzaizkigula. Honen atzetik etorri zen 2011n KONTXEXI DETEKTIBEA ELURRETAN, gazteek protagonismo berezia izan zutelarik.

UMEZURTZ

Edozein taldek bezala, GOAZek ere gorabeherak izan ditu bere ibilbidean, baina beheenetako bat, behearena ez esatearren, aurreko hamarkadan izan genuen.

Urte luze eta oparoen ondoren, 2014an Lukaxek taldea utzi zuen. Aurrera begira, zuzendari lanak Luis Marik hartuko zituela pentsatu genuen taldean, aurretik ere lan hauetan ibilia baitzen eta antzerkigintza eta taldekideekin harremantzeko sen berezia erakutsia baitzuen. Zorigaitzez, handik urtebetera hil zen minbiziaren ondorioz. Ezin hitzez azal jasotako kolpea eta jasandako galera. Umezurtz geratu ginen, lauzpabost kide nondik abiatu ezin jakin.



Maialen Zuaika, Irati Baroja, Eider Zulaika eta Biarritz Fernandez KANIKA ZURI-BELTZAK (2006) obran.
(Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).

Bizpahiru urtez, obrarik egin gabe gelditu zen GOAZ, lozorro moduko batean. Hainbat urtez halaxe iraun arren, hilzorian norbaiten hitzetan, ez zituen gainerako zereginak alboratu. Alde batetik, GOAZen eta euskal antzerkigintza-aren alde egindakoak eskertu eta omentzeko ekitaldiak antolatzen jarraitu du: Martin Idiakez, Lukax Dorronsoro, Joxemartin Urrutia “Txotxe” eta Luis Mari Agirrezabala.

Beste alde batetik, herrigintzan iraun du, urtez urte herriko kulturgileekin elkarlanean: INAUTERIAK, KORRIKA, OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA, eta beste hainbat eta hainbat herri-ekimenetan modu aktiboan lan eginez. Izan argiak eta musika jartzen, izan eszenatokia muntatzen, izan aktore lanak egiten edo beste hainbat lanetan. Nekea pilatuz, baina nekaezin. Argi dago herri honen paisaia kulturala ezin daitekeela ulertu GOAZ gabe, eta izenak jartzen hasita, badira guztioi gogora etorriko zaizkizuen bi: Josu Iriondo eta Karlos Larramendi. 47 eta 46 urte GOAZen, hurrenez hurren.

Eta noski, ANTZERKI ASTEA antolatzen jarraitu dugu.

ANTZERKI ASTEA

ANTZERKI ASTEA aipatzen hasita, horrek bakarrik, beste artikulu sorta baterako eman lezakeela esan genezake. Baina parentesi txiki bat egin eta, labur bada ere, ezin dezakegu aipatu gabe utzi. ANTZERKI ASTEAK bere aurrehistoriatxo edo aurrekaria 1981ean antolatutako aste-buruan izan zuen, ANTZERKI EGUNAK izenarekin, GERNIKA obraren estreinaldiaren aitzakiarekin edo. Bost urte igaro behar izan ziren I. ANTZERKI ASTEA antolatu arte. Bertan, lau antzerki emanaldiz gainera, tartean EZ DA PALE EGITEKO OLDUA obraren estreinaldia, mahai inguru bat eta erakusketa izan genituen. Hurrengo edizioa 1988an antolatu genuen, eta ordutik ez dugu hutsik egin, urtez urte, gure herrian antzerki zaletasuna eta euskara sustatzeko eta talde amateurrei plaza bat eskaintzeko bidean. Lehenengo ekitaldi hartatik ehundaka konpainia igaro dira gaurdaino. Aurten 37. ANTZERKI ASTEA ospatu dugu, eta konturazterako hurrengo edizioa gainean izango dugu.

AZKEN URTEAK ETA ETORKIZUNA

Agerikoa da beraz taldea forma eta molde ezberdinetan egon dela egituratuta bere ibilbidean zehar, eta azken urteek haize eta egiteko modu berriak ekarri dituzte. Alde batetik, gaurkotasunez bustitako gaiei buruz hitz egiteko beharra oholtzaratu dugu: feminismoa horien artean. Beste alde batetik, taldearen baitan antzerkigintza egiteko era ere aldatu da. Obra gidoi idatzi batetik abiatu orde, sortze prozesu baten baitan sortu eta garatu ditugu azken obrak. Halaxe hasi genuen ibilbide berria, 2021eko ekai-



Amaia Zinkunegi, Irati Baroja, Maialen Rosa, Amaia Arotzena, Itzale Laka eta Jule Urbietak LOTURA BASATIAK (2023) obran. (Argazkia: GOAZ Antzerki Taldea).

nean, Erika Olaizolak zuzenduriko BADATOR antzezlanarekin. Betiko aurpegiak, (Josu, Karlos, Joseba) eta ez horren betikoak (Irati), berrieekin (Itzale Laka eta Amaia Arotzena) elkartu ziren bertan. Antzerki hau, eta ondoren etorri diren BILAKATU eta SALBE, PUBLIKOA, Gozatuz programaren baitan eginiko ikastaroen fruitu izan dira, eta hauekin igo dira oholtzara Pili Litago, Nekane Goikoetxea eta Mattin Urbietak. GOAZen historian zehar gertatu bezala, ikastaroek uzta zabala jasotzeko aukera eman digute, izan obra berriak, jakinduria berria, edota kide berriak.

Bestalde, azken urteotan FOKUPEAN festibala ere antolatu dugu. Festibalak, emakumeek arte eszenikoetan duten papera balioan jarri du taularatutako antzezlan ezberdinen bidez. Horrez gain, antolatutako lantegiek herriko emakumeek antzerkigintzan duten paper aktiboa sustatu dute, eta bertatik sortua da herriko zenbait artistekin batera (Maialen Baroja, Maialen Rosa, Jule Urbietak eta Amaia Zinkunegi) oraindik herriz herri antzezten gabiltzan LOTURA BASATIAK.

ANTZERKIGINTZA DEBAN

Zalantzarik ez dago, aspaldidanik egon da antzerkigintza Deban. Hala, GOAZ antzerki taldeak urte luzez ekarpen handia egin dio Debako herriari antzerkigintzara hurbildu eta eskaintza kultural euskalduna mantentzeko bidean.

50 urte hauetan gora-behera asko izan ditugu. 35 emanaldi egiten genituen saioak izan ditugu, Zubeltzu lepo betetzen genuen garaia, aldizkarietan antzerki kriti-

kak idazten zizkigutenak, eta Zubeltzu itxi eta antzokirik gabe espazio egokien faltan, emanaldiak ahal bezain txukunen aurrera ateratzen saiatu garenak.

Zentzu horretan, amateur izatearen baitan aldaketa asko gertatu dira azken urteotan. Euskal antzerkigintzaren zati handi bat herrigintzari estuki loturik egon izan da, baina, azken urteotan asko profesionalizatu da, euskal aktore, zuzendari eta talde askoren profesionalizazioarekin. Antzerki amateurrek urteen poderioz presentzia galdu duen arren, GOAZek garai batean hartutako erabakiari eutsi dio, alegia, ez dio talde amateurra izateari utzi. Ez alferrik, GOAZ parte aktiboa izan da EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARREAREN (EATB) eta EUSKAL ANTZERKI AMATEURREN ELKARTEAREN (EATAE) sorrera eta ibilbidean.

Zorionez, badago mugimendua Debatik kanpo ere, eta badirudi garaiotan antzerki amateurra berriz ere indarrak hartzeko bidean dela. Horren lekuko Elgetan antolatutako

antzerki talde amateurren txapelketa edota duela gutxi Lezon antolatutako talde amateurren jardunaldia. Nola ez, bietan izan ginen.

50. URTEURRENA

50 urte bete ditu aurten GOAZek eta hasieran esan bezala, ez da kontu makala. Hori ospatzeko asmoz, taldearen bilakaeran esanguratsuak iruditu zaizkigun lau obra proiektatu genituen Kultur Elkartean azaroaren 11tik 14ra: GERNIKA, PERNANDO BIZIK HAGO ORAINDIO, KANIKA ZURI-BELTZAK eta BADATOR. Hori gutxi ez eta azaroaren 15ean 5 hamarkada hauetan GOAZkide izandakoen bizi-penak eta GOAZen historia biltzen dituen dokumentala estreinatu genuen, azaroaren 16an, kale-antzerki eta bazkariarekin ospakizunei amaiera emanez.

GOAZek beste 50 beteko dituen etorkizunak esango du. Baina etorkizunak hitz egin arte, guk haritik tiraka segiko dugu, antzerkia euskaraz herritik egiten.



GOAZ Antzerki Taldearen 50. urteurrenaren ospakizuna.
(Argazkiak: Nerea Bedialauneta, goikoa, eta GOAZ Antzerki Taldea, behekoak).